



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

PRENTSA-OHARRA

Ainhoa Ortells artisteak horma-irudiak margoztuko ditu “Palosanto” erakusketako artelanetan oinarrituta

Bilbon, 2012ko azaroaren 21ean

Ainhoa Ortells-ek bide bat aurkitu dau daborduko sortuta eta ikusgai dagozan artelanak berraurkitzeko. Margolari getxotar horrek, bere ikerketa-egitarauaren barruan, lortu dau mural baten jasotea margolari-kide dituan Ion Macarenoren eta Fernando Mestreren lanak. Azken artista bioi buruzko erakusketea azaro osoan dago ikusgai Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa aretoan. Ainhoa Ortells-ek hiru ordu emon ditu “Palosanto” erakusketako artelanek inguratuta; bizipen hori bere egin, narrazino-unibersoa eregi eta erakusketako margolari bien lanaren sintesi adierazgarria osatu dau.

Ortells-ek lortu dau bere ardura eta gaitasunik zintzoenetara hurbiltzeko metodologia. Aurretiaz aukeratu dituan margolanen “kopiak” egiten ditu, baina barritasun batez: kopiatzen dituan lanak erakusten diran leku berean egiten dau lana, mural bat osatu eta ikuspegi eta irakurkera barriak eskainiz. Getxotar horren aburuz, ez dau balio eta ez dau ezer ekarten lana argazki baten oinarrituta egiteak. Artista horrek “in situ”, bertatik bertara, antza emon gura deutse lanei eta horreen ahalik eta erregistrorik gehienei, bere berea izango dan artelana eregitearren.

Lana sortzen egoala, Ainhoak lagun izan ditu erakusketako protagonistetako bat, Fernando Mestre hain zuzen, eta Ainhoa Fullaondo Arte Eder Fakultateko irakasle eta erakusketako koordinatzailea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

NOTA DE PRENSA

Ainhoa Ortells reproduce las obras de la exposición “Palosanto” para llevarlas a un mural

Bilbao, a 21 de noviembre de 2012.

Ainhoa Ortells ha abierto una vía para redescubrir obras ya creadas y exhibidas. Dentro de su proyecto de investigación, la pintora getxotarra trasladará a un mural, el trabajo de otros dos compañeros suyos, Ion Macareno y Fernando Mestre, artistas salidos de la facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU que exponen hasta finales de noviembre en la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales. Durante tres horas, Ortells ha convivido con las obras de la muestra “Palosanto” para construir su propio universo narrativo y crear una síntesis representativa de este trabajo.

Ortells ha creado una metodología cercana a sus más sinceras inquietudes y capacidades. Realiza “copias” de pinturas previamente seleccionadas. La novedad es que estas reproducciones se realizan en el mismo sitio en el que se exhiben las obras y se agrupan después en un mural, lo que ofrece nuevas perspectivas y lecturas. Para la getxotarra no es válido ni productivo hacer dichas representaciones teniendo como referente una fotografía de la pintura. La artista quiere apreciar “in situ” la obra y percibir la mayoría de sus registros, con el objeto de construir a posteriori su propio puzzle creativo.

En la primera fase de creación de su obra de grandes dimensiones, Ortells ha estado acompañada por uno de los protagonistas de la muestra “Palosanto”, Fernando Mestre, y por la profesora de Bellas Artes y coordinadora de la exposición, Ainhoa Fullaondo.